

telebista ♦ irratia

Hainbat esparrutako pertsona ezagunak 'Hator kantari Hator'-en

Donostiako Kursaal jauregian grabatu zen atzo, saioaren laugarren aldia

Erredakzioa / Donostia

Laugarren urtez jarraian eskainiko du *Hator kantari hator* saioa ETB1ek Gabon gauean. Aurrekoetan bezala, alor askotako pertsonaia ezagunek euskal kantuak abestuko dituzte Oskorri musika taldearekin. Estreina-koz, Kursaal jauregian grabatu zen atzo saioa.

AURREKO ekitaldietan izan zuen arrakasta ikusita, laugarrenegoz izango da ikusgai *Hator kantari hator* saioa ETB1ean, gaueko 23:30etatik aurrera. Aurten ere, politika, kirola, musika, moda eta beste hainbat esparrutako jendeak hartuko du parte. Oskorri taldearekin batera. Lehenengoz, Donostiako Kursaal jauregitik eskainiko da jaialdia, eta besteak beste, Juanma Bajo Ulloa zinema zuzendaria eta Martin Berasategi sukaldaria izango dira parte-hartzaileetako bi.

Zerrenda, ordea, luzea da. Julio Ibarra eta Iñaki Gabilondo kazetariak adibidez, ohiko lanak utzi eta kantari arituko dira. Ibarrek Laura Espido idazle gaztearekin hartuko du parte (1999ko Planeta saria irabazi du).

Kirol munduko ordezkariek ere izango dira: hala, pilotalekuan arerio diren arren, elkarrekin abestuko



Hator kantari hator saioak hainbat eremutako jende ezaguna biltzen du Gabon gauean.

dute Aitor Elkorro, Carlos Armendariz, Jokin Errasti eta Miguel Capellan pilotariek. Joane Somarriba, Igor Gonzalez de Galdeano eta Unai Osa txirrundulariek ere kantatuko dute, eta, azkenik, Julen Guerrero, Joseba Etxeberria eta Ismael Urzaiz Athleticen jokalariek osatuko dute kirolarien zerrenda.

Alaitz eta Maider ere *Hator kantari hator* saioako gonbidatuen artean daude. Oraingoan, ordea, ez dute euren pieza bat abestuko, *Amak ezkondu ninduen* kantua baizik, eta bakarrik aritu beharrean, beren amak izango dituzte lagun: Ana Tolosa eta Arantza Galardi.

Gainerantzean, Patxi

Zabaleta (EH) eta Jose Luis Uriz (IU-EB) politikariak, Santiago Bengoa eta Carlos Trevilla CCOO eta UGT sindikatueta idazkari nagusiak, Xabier Amuriza bertsoalaria eta Lorena Bernal eta Jorge Fernandez, aurtengo Miss eta Mister Espainia, izango dira kantari ariko diren beste batzuk.

laburrean

Olentzero izango da gaurko protagonista

Euskal Telebistak egun osoan eskainiko dituen programa gehienetan, Olentzero izango da protagonista nagusia. *Egin Kontu* saioan adibidez, zeina Nerea Pikabeak aurkezten duen, ume talde batek hainbat kanta eskainiko dizkio Olentzerori, eta ondoren hainbat gonbidatuk hizpide izango dute opari emaile potoloa. Arratsaldean, *Agur Olentzero Agur* eta Gontzal Mendibilen *Olentzero* ikuskizunak eskainiko dira lehen katean. ETB2ko *Zoombados* saioan ere izango du bere txokoa Olentzerok.

'La noche de Columbia' berezia Gabon egunean

Columbia zinema produktorak 75 urte bete dituela eta, *La noche de...* berezia eskainiko du ETB2k Gabon egunean. Felix Linaresek aurkeztuta, *En la linea del fuego* eta *Gilda* filmak eskainiko dira, *La dama de la antorcha* dokumentalaz gain. Aurretik, Columbia konpainia nola sortu zen eta 75 urteetan zehar gertatutako bitxikerien errebasoa egingo du Felix Linaresek. Besteak beste, Cary Grant, Rita Hayworth eta Frank Sinatra aktoreak aritu dira lanean Columbiarekin, eta urte horietan guztietan pelikula oso ezagunak kaleratu ditu; *El último emperador*, *Lawrence de Arabia* edo *El puente sobre el río Kwai* esaterako.

Urtearen errebasoa egingo du 'Informe Semanal' programak

Informe Semanal saioak —TVEk eskaintzen du, larunbatetan—, urtearen errebasoa egiten duen ordubeteko dokumentala eskainiko du Gabon egunean. Erreportajea, 1999 urtean bildutako irudi ikusgarrienek osatzen dute. Besteak beste, ETAK aldarrikatutako su-etanaren amaiera, urte honetan egin diren hauteskundeak, Kosovo eta Txetxeniako gerrak eta beste hainbat gai aztertuko dira.

'Zoombados' berezia eskainiko du gaur ETB 2k

■ Gabon gaueko programa Mercedes Lizuriaga eta Alfonso Diez aktoreek aurkeztuko dute

Erredakzioa / Donostia

ALAITASUNA eta umorea dira Gabon gaueko *Zoombados* bereziaren osagarriak. Emanaldia 23:10ean eskainiko du ETB 2k, eta ordu eta erdi iraungo du. Eduki barregarri eta hainbat ezustez osatua dago *Zoombados*. Aurkezleak Mercedes Luzuriaga eta Alfonso Diez aktoreak izango dira, *Zoom-*

bados programan amasemeen papera egiten dutenak alegia. Saioaren ardatza, berriz, Eguberria izango da.

Olentzero, Gabonetako erosketak, jostailuak eta opariak izango dira esketxetako gai nagusiak. Horieta batean, dendan dauden bezero guztiak Olentzero direlakoan, haur batek opariak eskatuko dizkie.



Mercedes Luzuriaga eta Alfonso Diezek aurkeztuko dute saioa.